

TOKI GARAPENERAKO BATZORDEA

1.- LATSUNBEBERRI AUZOKO 16-23 ERAIKINETAKO URBANIZAZIOA EGITEKO JARRITAKO ABALA ITZULTZEKO ESKAERA. (Txos. EV. 212_21)

xxxxxxxxxxxxxxxxxxk, Latsunbeberri 16-23 jabekidegoaren izenean, Latsunbeberri 16-23ko eremuan egindako lanek urbanizazio publikoan eragin zezaketen kalteak bermatzeko jarritako 20.000 €tako abala itzultzea eskatu du.

Aztertu da udal arkitektoak egindako txostena. Txosten horretatik hau ondorioztatzen da:

Aztertu da espedientean jasotako dokumentazioa eta egindako obrak onargarriak direla adierazi daiteke.

Proposamena:

Tokiko Gobernu Batzarrak hau erabakitzea:

Egindako obrek ez dute itsuraz urbanizazio publikoan kalterik sortu, hortaz, urbanizazio publikoa bermatzeko jarritako abala (20.000€) bueltatu daiteke.
